

Honela deklinatzen dira hitzak **NORI** kasuan:

- **Mugatu singularra:** *Ume**ari** izozkia erori zaio.*
- **Mugatu plurala:** *Ume**ei** izozkia erori zaie.*
- **Mugagabea:** *Zer ume**ri** erori zaio izozkia?*

Aukeratu eta osatu esaldiak :

- Josebak ... ipuina irakurri dio.
a) seme**ari** b) seme**ei** c) seme**ri**
- Hainbat ... ez zaie gustatu gaurko filma.
a) ikasle**ari** b) ikasle**ei** c) ikasle**ri**
- Nire baserriko ... artoa gustatzen zaie.
a) asto**ari** b) asto**ei** c) asto**ri**

Honela deklinatzen dira hitzak **NOREN** kasuan:

- **Mugatu singularra:** *Irakasle**aren** giltzak.*
- **Mugatu plurala:** *Ikasle**en** giltzak.*
- **Mugagabea:** *Zer ikasle**ren** giltzak?*

Osatu esaldiak hitz hauekin:

Ilargiaren, idazleren, Edurneren, zaldien.

- Gure argazkiak ekarri ditut.
- Hainbat liburuak erosi ditugu.
- Leihotik argitasuna ikusten nuen.
- lora oso barregarria da.

Honela deklinatzen dira hitzak **NONGO kasuan**:

- **Mugatu singularra:** *Egunkariko albistea.*
- **Mugatu plurala:** *Egunkarietako albisteak.*
- **Mugagabea:** *Zer egunkaritako albisteak?*

Osatu NOREN eta NONGO kasuak erabiliz.

herritako baloien eskolako Autobusetako ikasleen

- Ikasleek..... atea apurtu dute.
- Jokalaria atzetik joan da.
- Hainbat neskak pozik daude.
- gidariek greba egin dute.
- Maisuak lanak zuzendu ditu.